


## altza

Adinduentzat  
ikastaroak

bidebietako «*Familia eta gizarte bezkuntza zentrua*»k egin duen ikerketa batek ezagutzera eman duenez, auzoan alfabetatu gabeko pertsona adindu asko dago. Hori dela eta, adinduentzako alfabetatze kanpaina jarri du martxan Moneda baserriko zentru honek.

Ikastaroa emateko orduan kontutan izango da ikaslearen ulermen maila, idazketa maila, zenbakien ezagueria...

Urrian hasiko da ikastaroa, baina maiatza eta



Argazkia: Roxali Fernandez

**Autobus zerbitzua hobetzen**

Azkenean Buenabista inguruko biztanleek badute autobus geltokia, izan ere, urtetan egon baitira autobusa hartzeko geltokira bide luzea egin beharrean. Bestalde, autobus zerbitzua-ekin jarraituz, esan, Udalak elbarrituentzat erosi dituen autobusek Altzako zerbitzua egiten dutela.

ekaina bitartean antolatzaildeek ikasleekin lehen harremanak izan nahi dituzte. irakasgaiak ahalik

eta egokien prestatzeko.

60-65 urtetik gorakoei zuzendua da ikastaroa, dohain da eta interesa due-

nak Moneda baserrian jaso dezake informazioa.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

## amara berri

## Pasai Donibane-Irun zeharkaldia

bigarren etaparako 15 kilometroko ibilbidea prestatu dute Santiagomendikoek, gehien bat Jaizkibel mendian barrena igaroko dena. Noizko? Ba ekainaren 4rako, igandea. Gipuzkoako Birarekin segituz, etapa honetan Pasai Donibaneko Larrabide baserriatik gorantza abiatuko dira. Behin Jaizkibelgo errepidera iritsita, mendi zidorra jarraitu eta inguruko dorreen artean pasatuz tontorrera (455 m) helduko dira. Ondoren, maldan behera Guadalupeko Amaren Santutegira; han atse-



Epeleko eta Astigarraga arteko zeharkaldiari dagokio argazkia. Bertan, Sagastietako trikuharrian pausatuta ditugu txangolariak, txakur eta guzti.

dentxoak hartuko dute. Azkenik, kostaldeko Santio

bidea hartu eta XV. mendeko Santiagotxo baseliza-

ra iritsiko dira, gero Iruna jaisteko.

Bost bat orduko txangoa izango da. Erraza benetan, aurrekoa baino zertxobait zailagoa ordea. (Esan behar Donostia-Pasaia arteko etapak 30 lagunetik gora bildu zitezela). Horrenbestez, igande goiz polita pasatzera animatzen direnak Santiagomendi Elkartetik (Juan de Barkaiztegi 17) iluntzean pasa edo bestela igandean bertan goizeko 8.30etan elkartean ager daitezela.

BEÑAT DOXANDABARATZ (TFNOA.: 451670)